



## INGURUMENENKO JARDUNARI BURUZKO JAKINARAZPENA

Gastronomía Baskak, ingurumenaren babesaren eta ingurumenaren jasangarritasunaren alde egiten duen apustuan, prozesuak nahiz baliabideak zaintzen ditu, maila globalean arduratsua den giza garapena sustatzeko, ingurumena bera babesteko eta, ISO 14001:2015 arauan zehaztutako irizpideen arabera, etorkizuneko belaunaldiek bizi-kalitate hobeko duten eskubidea errespetatzea helburu duen ekonomia bultzatzeko.

2022an, azken belaunaldiko 980 modulu fotovoltaiko jarri ziren Gastronomía Baskak Mungian dauzkan instalazio nagusietako teilatuetan, eta haien azalera 1.810 m<sup>2</sup>-koa da, zazpi tenis-pista ingurukoa, alegia. Horrela, CO<sub>2</sub>ren isuria urteko 103 Tm murriztea lortzen da, 282 kg eguneko, 8 etxebizitza ertainen urtebeteko jardunbideak isuritako gas guztia halakoa, alegia.

Instalazio fotovoltaiko horretaz gain, enpresako ibilgailuak eta logistikako furgonetak instalazioetan eskuragarri dauden karga-guneetan entxufatzen dira gaur egun, eta, hemendik aurrera, eremu fotovoltaikoak sortutako energia bera izango dute hornigai. Aurrerapauso handia da berotegi-efektuko gasen isuria murrizteko asmoz Gastronomía Baskak ezarritako estrategian.

Era berean, lankidetzaz hitzarmen bat dago Mungiako sukalde zentraletik jantoki sozialei elikagaiak emateko. 2024an 4492 otordu banatu dira, hau da, 1236 kg.

Gastronomía Baska aukera berriak aztertzen ari da, ingurumenaren zainketa-erkin duen benetako konpromisoan sakontzeko. Ikuspegi hori, hain zuzen ere, zabal-zabal partekatzen dute bere bezeroek, eta erabat bereganatuta dute konpainian lan egiten duten guztiek.

Mungian, 2025eko otsailaren 20an

**Fernando Gazpio**

Zuzendari gerentea